



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko abenduaren 18a

44. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, ondoko foru lege hau aldatzekoa: 21/2014 Foru Legea, azaroaren 12koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa formula 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Done Jakue Bideko bizitegi-eremuaren Udalez gaindiko Proiektu Sektoriala dela-eta Nafarroako Gobernuak duiten ikuskerari, asmoei eta helburu politikoei buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, Uholde-arriskuari buruzko plan bat abian jartzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da onar dezan Nafarroako Ubidea azpiegitura estrategiko bat dela Erriberarako. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuari eska diezaion Espainiako Trafikoko Buruzagitza guztien arauak eta irizpideak bateratzeko. Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeen eta Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu d (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan klima aldagetari aurre egiteko plan estrategiko bat taxutu dezan. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztu du (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak apustu egiten baitu erantzukizun publikoko hezkuntza sistema baten aldeko jarrera tinko baten alde. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu oso komenigarria eta interes orokorrekoa dela hitzarmen sektorial guztietan plantilla-subrogazioko klausulak sartzea. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa erakusten baitu, memoria historikoari eginiko eraso guztiak direla-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baitu Polizia Nazionalako bi agente hilik gertatu ziren atentatua, Kabulen (Afganistan) gertatua. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako iparraldeko zenbait ikastetxetan 12 urtetik 16 urtera bitarteko ikasleei egindako “Nafarroa Mendialdeko 2015eko Inkesta Soziolinguistikoari” buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (14. or.).

—Galdera, ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna arautzen duen Foru Legearen ondorioz egin diren zabalkunde eta sentsibilizazio kanpainei eta laguntza-txakurren zerbitzua behar duten pertsonendako laguntza ekonomikoari buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (15. or.).

—Galdera, Nafarroako Hezkuntza Sisteman ezarritako hezkuntza ereduen ebaluazioak egiteari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (16. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamentuko langileen 2016ko lan egutegia (17. or.).

—Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren 2016ko ordutegi ofiziala (18. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, ondoko foru lege hau aldatzekoa: 21/2014 Foru Legea, azaroaren 12koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa formula 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak honako foru lege proiektu honi buruz onetsitako irizpena: "Foru Lege proiektua, ondoko foru lege hau aldatzekoa: 21/2014 Foru Legea, azaroaren 12koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa formula 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen." Proiektu hori 2015eko azaroaren 23ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko abenduaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

IRIZPENA

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak 2015eko abenduaren 16an egindako bileran onetsia.

Foru Lege proiektua, ondoko foru lege hau aldatzekoa: 21/2014 Foru Legea, azaroaren 12koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa formula 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen

ZIOEN AZALPENA

Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen azaroaren 12ko 21/2014 Foru Legea 2014ko 230. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, azaroaren 24an.

Foru lege horren 2. artikuluan funtsaren zuzkidura arautzen da, eta 2. idatz-zatian 2016ko ekitaldian eguneratzeko formula bat jasotzen da.

Gure toki entitateen egoera ekonomikoa dela eta, eta kontuan harturik betetzen dituzten eskumenen garrantzia eta kopurua, beharrezkoa da funtsaren zuzkidura handitzea 2016ko ekitaldian, Foru Komunitateko kontsumoko prezioen indize eguneratua (ekainetik ekainera hartua) gehi ehuneko biko igoera aplikatuta. Horrela, 2011ko alda-

keta egin baino lehenagoko irizpidea berreskuratu da; ez da ahaztu behar aldaketa horrek nabarmen murriztu zuela Nafarroako toki entitateen jasagarritasun finantzarioa.

Bestetik, bidezkoa da foru lege horren 7. artikuluko e) letra kentzea, hain zuzen ere hautetsiei karguan aritzearen ondorioz ordaindutakoagatik Nafarroako udalei ematen zaien konpentsazioa baliogabetu edo atxikitzeari buruzkoa; izan ere, Nafarroako Kontseiluak irizpen batean adierazi zuenez, ez dirudi neurri hori bateragarria denik Konstituzioak eta Nafarroako toki araubideak toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsari ematen dioten eginkizun garrantzitsuarekin. Gainera, letra horren oinarrian, ez betetzeak zehazten dituen sisteman alegia, ageriko gabeziak daude zehapen araua gidatu behar duten printzipioei dagokienez, hala nola: segurtasun juridikoa, motak, erantzukizuna, errugabetasun presuntzioa, defentsarako bermeak, irmoak ez diren zehapenen eraginkortasun eza eta proportzionaltasuna.

Artikulu bakarra. Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen azaroaren 12ko 21/2014 Foru Legearen aldaketa.

Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen azaroaren 12ko 21/2014 Foru Legearen 2. eta 7. artikulua aldatzen dira.

Bat. Foru Legearen 2. artikulua honela gelditzen da idatzita:

“2. artikulua. Funtsaren zenbatekoa.

1. 2015eko ekitaldian, Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan toki entitateek duten parte hartzeko funtsaren zenbatekoa 200.688.073 eurokoa izanen da.

2. 2016ko ekitaldian funtsak izanen duen zenbatekoa zehazteko, 2015. urterako ezarritakoari gehituko zaio kontsumorako prezioen indizeak Nafarroako Foru Komunitatean izandako portzentaje-igoera, ekainetik ekainera neurtua, gehi ehuneko bi”

Bi. 7. artikuluko e) letra kentzen da. Hona testu berria:

“7. artikulua. Nafarroako udalenzako konpentsazioa, hautetsiei karguan aritzeagatik ordaindutakoagatik.

Kargu publikoetan aritzeagatik korporazioko kideei ordainsariak, bilkura-sariak, kalte-ordainak edo eginkizun publikoetan parte hartzeko eskubide konstituzionalaz baliatzearen ondorioz sortutako gastuengatik heldu diren bestelako pagamenduak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalenzako konpentsazioa honela eginen da:

a) Baldin eta udalek alkate eta zinegotzietan ordaintzen badiete, legeria orokorrari jarraikiz, denbora osoan edo partzialean karguan aritzeagatik, edo ematen badizkiete bilkura-sariak, kalte-ordainak edo bestelako pagamenduak, kargu publikoan aritzearen ondorio zuzenak direnak, udal horiek ekarpen bat jasoko dute toki ogasunek Nafarroako zergetan parte hartzeko duten funtsetik, ordain horien kostua kitatzeko.

b) Kontzeptu horregatik, udalek urtean jaso ahal duten gehieneko ekarpena, udala osatzen duten hautetsien kopuruaren arabera, legeria orokorrari jarraikiz, honako hau izanen da:

b.1) 3 zinegotzi dituzten udalak: 4.196,43 euro.

b.2) 5 zinegotzi dituzten udalak: 10.807,87 euro.

b.3) 7 zinegotzi dituzten udalak: 15.893,99 euro.

b.4) 9 zinegotzi dituzten udalak: 19.073,19 euro.

b.5) 11 zinegotzi dituzten udalak: 30.516,69 euro.

b.6) 13 zinegotzi dituzten udalak: 52.768,37 euro.

b.7) 17 zinegotzi dituzten udalak: 80.742,22 euro.

b.8) 21 zinegotzi dituzten udalak: 115.709,39 euro.

b.9) 27 zinegotzi dituzten udalak: 193.908,04 euro.

c) Ekarpene horiek ekarpen finalistak izanen dira, bakar-bakarrik erabiliko baitira alkate nahiz zinegotzietan aipatu diren kontzeptuengatik ordaintzeko, eta 2016ko ekitaldian eguneratuko dira, 2.2 artikuluan ezartzen den moduan.

d) Ordainketa ordainaldi bakarrean eginen da, transferentzia arrunten funts orokorraren bigarren zatirekin batera.

Jaso nahi duten udalek aldeztu aurretik eskatu beharko dute, urte bakoitzeko urtarrean, eta eskabideari ekarpen horrek aurreko ekitaldian izandako zenbatekoaren eta xedearen ziurtagiria gehitu beharko diote, halako ekarpenik egin bazuten. Ekitaldi bati esleitutako diru kopurua egiaztatzen da.

giran justifikatutakoa baino handiagoa denean, aldea erregularizatu egingen da, kasuko ekitaldiari dagokion ordainketatik kenduz”

Xedapen gehigarri bakarra. 7. artikulua aldaketaren ondorioak.

Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen

azaroaren 12ko 21/2014 Foru Legearen 7. artikulua aldaketak, foru lege honen artikulua bakarreko bigarren idatz-zatia aurreikusitakoak, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Done Jakue Bideko bizitegi-eremuaren Udalez gaindiko Proiektu Sektoriala dela-eta Nafarroako Gobernuak duiten ikuskerari, asmoei eta helburu politikoei buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkezturiko jabeldura, Done Jakue Bideko bizitegi-eremuaren Udalez gaindiko Proiektu Sektoriala dela-eta Nafarroako Gobernuak duiten ikuskerari, asmoei eta helburu politikoei buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Nafarroako trenbide-plataforma berriaren diseinuan giltzarri izanen da horrek Iruñerrian eginen duen ibilbidea. Giltzarri da hainbat arrazoiengatik: lehenengoa, Iruña delako gure erkidegoko geltoki edo bidaiarien eta salgaien nodo nagusia; bigarrena, hiriaren taxuketan izan dezakeen garrantziarengatik; eta hirugarrena, horri buruzko Udalez gaindiko Proiektu Sektorialaren konfigurazioak obra hori finantzatzeko baliabide ugari sortzea ahalbidetzen duelako.

Legegintzaldiak bost hilabete bete dituen honetan, ez dugu ikusi proiektu hori garatu ahal izatea errazteko inolako urrats positiborik, eta horrek, jakina, kezka sortzen du gure erkidegoko herritar askoren artean; izan ere, herritarrek esku-bidea dute jakiteko zer den Gobernuak arlo honetan zehatz-mehatz planteatzen duena.

Horiek horrela, eskatzen da ondoko jabeldura onartzea eta izapidetzea, Nafarroako Gobernuak azal dezan nolako ikuspegia, asmoak eta helburu politikoak dituen Done Jakue Bideko bizitegi-eremuko Udalez gaindiko Proiektu Dektorialari dagokionez.

Iruñean, 2015eko abenduaren 10ean

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, Uholde-arriskuari buruzko plan bat abian jartzeko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-mahai bat sor dezan, Uholde-arriskuari buruzko plan bat abian jartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2016ko otsaila eta martxoan gero eta gertuago daude; alegia, urtebete beteko da labore eta azpiegitura pribatu nahiz publikoetan kalteak eragin zituzten uholdeak gertatu zirenetik.

2016rako aurrekontu proiektuan honako kontusail hauek ageri dira azpiegiturak konpontzeko:

- Nekazaritza-azpiegitura publikoak konpontzeko laguntzak: 2.678.353 €.

- Ureztatzaileen Elkartearen nekazaritza azpiegiturak konpontzeko laguntzak, aparteko uholdeengatik: 1.347.000 €.

Kontusail horiek beharrezkoak dira, baina neurri zuzentzaileak dira, eta beharrezkoa da neurri prebentiboak lantzen hastea, etorkizuneko uholde-entzadak arintzen saiatzea.

Botere publikoek, PPren gobernuak eta UPN-ren gobernuak iaz egindako kudeaketa oso eskasa izan zen, eta neurriak lehenbailehen hartu beharra dago kudeaketa txar hori zuzentzeko.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Lan-mahai bat sor dezan, zeinean Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, toki entitateak eta nekazariak ere egonen baitira ordezkatuta.

2. Urgentziaz aurkez dezan Uholde-arriskuari buruzko plan bereki bat.

3. Lan egin dezan eremu urperakorretan, aseguru azkar eta zalueta, eta ukitutako lurzati balio-galera balora dezan.

4. Erabaki adostuak har ditzan ibaiak garbitzeko eta mantentzeko, eta legarrak ateratzeko erabilera tradizionalak baimendu ditzan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 9an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da onar dezan Nafarroako Ubidea azpiegitura estrategiko bat dela Erriberarako.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita onar dezan Nafarroako Ubidea azpiegitura estrategiko bat dela Erriberarako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

PSN-PSOEren ustez, Nafarroako Ubidearen 2. fasea, zeinak batik bat Erriberari eragiten baitio, proiektu estrategiko bat da foru erkidegoarentzat, eta funtsezkoa da bere lurralde-orekari begira. Finean, Nafarroa egituratzen duen proiektu bat da, bizitza, aberastasuna eta enplegua sortzen dituen.

Nafarroako Ubidearen 2. fasea eraikitzea beharrezkoa da nekazaritzarako, nekazaritzako elikagaien industriadarako eta, berebat, Tuteran bezalako herrietan kalitatezko edateko ura bermatzeko, besteak beste.

Sozialistok prest agertu gara “noiz”, “nola” eta “zergatik” eztabaidatzeko, ohartuta baikaude 2. faserako egungo proiektua ez dela baliozkoa, baina betiere helburu garbi batekin: Nafarroako Ubidearen 2. fasea egiten dela bermatzea.

Nafarroako Gobernuaren zehaztugabetasuna ikusita –Erriberara ura eramanez duela dio, baina ez daki nola–, eta Nafarroako Gobernuari babesa ematen dioten taldeen kontrakotasuna ikusita –EH Bildu, Ahal dugu eta I-E–, Osoko Bilkuran Nafarroako Ubidearen aurka azaldu baitziren, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du:

1. Nafarroako Ubidea Erriberarako –eta, horrenbestez, Nafarroa osorako– azpiegitura estrategiko bat dela onar dezan.

2. CANASArekin eta Ureztatzaileen Erkidegoarekin birnegotzioa dezan, Kontuen Ganberak egindako gomendioei jarraikiz, epe luzeagorako finantzaketa bat; izan ere, 30 urtekoa da gaur egun.

3. Ureztatzaileen Erkidegoa CANASaren Administrazio Kontseiluan sar dezan.

4. Kontratu bateratu bat lor dezan nekazariei egonkortasuna emateko, eta ez dezan baldintzarik alda, inplikaturako alderdien adostasunik gabe.

5. Nafarroako Ubidearen 2. fasea eraikitzeko proiektua zehaztasunez defini dezan.

6. Bigarren fasea eraikitzearen beharra onar dezan, behin proiektua definituta eta finantzaketa ebatzita.

Iruñean, 2015eko abenduaren 9an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Estatuko Gobernuari eska diezaion Espainiako Trafikoko Buruzagitza guztien arauak eta irizpideak bateratzeko.

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO, GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEEK ETA NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek eta Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Estatuko Gobernuari eska diezaion Espainiako Trafikoko Buruzagitza guztien arauak eta irizpideak bateratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeetako eledunek, legebiltzar honen Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Trafikoko Zuzendaritza Nagusia konparaziozko bidegabekeriako egoeran dago, beste autonomia erkidego batzuetako trafikozuzendaritza nagusiek jasotzen duten tratuarekin alderatuta.

2007ra bitarte, zirkulazioko azterketa praktikak egiten ziren edozein gidabaimen lortzeko, aste-ero egin ere. Autoeskola bakoitzak egun bat zeukan alde aurretik finkatuta, eta irakasle bakoitzeko lau ikasle aurkeztuz, gehienez ere. Izangai bakoitzak alde aurretik zekien zein egunetan egin behar zuen azterketa.

2007an, epai batek kupo-sistema kentzera behartu zuen Trafikoko Zuzendaritza Nagusia, eta zentro bakoitzak nahi adina ikasle, mugarik gabe, aurkez zezakeela erabaki zen; halatan, jada ezin da jakin azterketaren data, zeina Nafarroako autoeskola guztietako izangai-kopuruaren eta eskuragarri dagoen aztertzaile-plantillaren baitan dagoen.

2009an, Omnibus Legea sartu zen indarrean. Lege horrek sektorean sartzeko baldintzak liberalizatu zituen, eta, hartara, low-cost autoeskolak sortu eta ondorioz prezioak jaitsi ziren. Aztertzaileen plantilla murriztu zen bidenabar; % 50, hain zuzen ere (hamar izatetik bost izatera gaur egun). Orduan hasi ziren metatzen azterketa-azterapenak, eta izangaiak ez dakite noiz egingen zaien azterketa. Gainera, aztertzaile-lanpostu hutsak betetzen ez direnez, aztertzaile ibiltariaren figura sortu da (une honetan, guztira bederatzi daude Estatuan).

Nafarroan, horrenbestez, jaitsiz joan da azken urteotan gidabaimena ateratzeko azterketa gainditzeko duten ikasleen portzentajea; 2008an % 44,20koa izatetik 2015ean % 38koa izatera igaroda; gurearekin muga egiten duten autonomia erkidegoetan, berriz, portzentajea % 50ekoa edo handiagoa da.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Estatuko Gobernuari eska diezaion, Barne Ministerioaren bidez, Espainiako trafikoko buruzagitza guztien arauak eta irizpideak bateratzeko.

2. Nafarroarako aztertzaile-plantilla finkoaren egoera azter dezan, bai eta ikastetxeetan zirkulazio-hezkuntza zertan den ere.

Iruñean, 2015eko abenduaren 7an

Foru parlamentariak: Luis Zarraluqui Ortigosa, Unai Hualde Iglesias, Adolfo Araiz Flamarique, Teresa Sáez Barrado, Guzmán Garmendia Pérez, Ana Beltrán Villalba eta José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroan klima aldaketari aurre egiteko plan estrategiko bat taxutu dezan.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroan klima aldaketari aurre egiteko plan estrategiko bat taxutu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zio-azalpenean adierazitakoa oinarri:

Klima-aldaketa errealtate bat da, jada inork zalantzan jartzen ez duena; gutxienez ere erkidego zientifikoan, eta segur aski, nolabait ere informatuta dagoen eta gaia gutxienez objektibotasun batez aztertzen duen edozeinen kasuan. Badakigu, halaber, nolako papera jokatzen duten gain honetan “negutegi-efektuko gas” deitutakoek, zeinak erregai fosilen erreketa sortzen baititu. Halaber, nahikoa eta sobra ezagutzen ditugu nolako arriskuak dakartzan eta jada antzeman ahal ditugun eraginak.

Gobernuaren esparruan, badirudi zer edo zer aurreratzen ari garela. Klimari buruzko aurreko goi-bileretan porrot nabarmenak izan ondoren, badirudi ezen Parisen egunotan egiten ari den horretan, Klima-aldaketari buruzko 21. Konferentzian (COP21), konpromiso-maila handiagoa sortzeko aukera antzematen dela; bereziki, negutegi-efektuko gasen produkzio handiena duten herrialdeetan. Azkenean, badirudi behar adinako borondate politikoa dagoela orain, tenperatura orokorren igoera eta horrek ingurumenaren duen domino-efektua direla-eta neurriak hartzeko.

Badirudi urgentea eta oraindik ere irrisgarria dela mendearen amaieran tenperatura orokorren igoera 2º C-tik behera mantentzearen helburua –helburu itxuraz apala baina egiazki neketsua, arazoaren bilakaerari erreparatuta–; izan ere, hala egiten ez bada, badirudi, proiektzioen arabera, 5º C inguruko igoerak gertatuko direla, eta horrek eragin katastrofikoak izanen lituzke mundu osoan.

Bestalde, energiaren arloko produkzio- eta kontsumo-eredu berri bat sortzeak balio ekonomiko handiko industria baten agerpena eragin dezake etorkizunerako, eta ezin gara horretatik kanpo geratu.

Nafarroako Gobernuak berriki konpromiso bat sinatu du, beste 100 erregiorekin batera, negutegi-efektuko gasen emisioak 2050. urterako % 80 gutxitzeko, klima-aldaketari buruzko Parisiko goibileraren dela-eta.

Gobernu erregional horiek, Nafarroako Gobernuaren beraren prentsa-ohar ofizialak adierazten duen bezala, konpromisoa hartzen dute nazioarteko lankidetzarako eredu zabalagoa sustatzeko; eredu hori gauzatuko da bere eskumeneko esparruetan, honako gai hauetan zentratuta: efizientzia energetikoa; trafikoa eta garraioa; baliabide naturalen babesa eta hondakinen gutxitzea; zientzia eta teknologia; komunikazioa eta parte-hartze publikoa; eta klima-kutsatzaile efimeroak.

Gure ustez, energia-agertoki berri bateranzko eraldaketa horrek eskatzen du neurri zehatzak hartzen joatea epe luzeko ikuspegi estrategiko batekin. Halaber, uste dugu prozesu hori gizarteko sektore guztiek ahal den informazio gehiena edukiz eta haiek parte hartuz egin behar dela, eta are etorkizun klimatiko baterako prestatu beharra daukagula, zeinetan, helburu onenak erdietsiz mende amaierarako igoera 2º C “soilik” izanik ere, posible baitira balizko lehorre-egoera iraunkorrak, itsasoaren maila igoetzea, eta egoera horietatik guztietatik heldutako eragin aurreikusgarriak, hala nola elikagai-eskasia, biztanle-migrazio masiboak eta abar.

Hori guztia dela eta, eskatzen da honako mozioa onartu eta Osoko Bilkuran izapidetu dadila:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Agerraldi boluntario baterako eskaria eginez parlamentu honetan aurkez ditzan sinatutako akordioan jasotako konpromiso zehaztuak.

2. Klima-aldaketaren aurkako Nafarroako plan estrategiko bat egin eta Parlamentu honetan 2017aren erdialdea baino lehen aurkez dezan, eta plan horrek Nafarroako gizartearen parte-hartze zabala izatea.

3. Plan estrategiko horrek bere garapenerako aurreikuspen bat jaso dezan, bai eta honako arlo hauei buruzko plan sektorialetako neurrien aurre-rapen bat ere: energia garbien ekoizpena eta efizientzia energetikoaren sustapena; trafikoa eta

garraioa; baliabide naturalen babesa eta hondakinen gutxitzea; energia-ereduaren aldaketan oinarritutako ekonomiaren sustapena eta teknologia; bai eta ekimen honetan funtsezkotzat jotzen diren gainerako alderdiak ere, eta horiek guztiak Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen esparruan.

4. Plan horrek adierazle batzuk proposa ditzan, Nafarroako Gobernuak emisioen gutxitzea dela eta sinatuta dauzkan helburuen jarraipena ahalbidetuko dutenak.

Iruñean, 2015eko abenduaren 10ean

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak apustu egiten baitu erantzukizun publikoko hezkuntza sistema baten aldeko jarrera tinko baten alde.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko abenduaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Parlamentuak bere jarrerarik tinkoena erakusten du erantzukizun publikoko hezkuntza sistema baten alde, gizarteratzearen inguruko balioen

aldeko apustu eginen duena, hiritartasun aktiboa sustatuko duena eta nafar gizarte anitz, mestizo eta tolerante bat ikusgai jarriko duena, hala hizkuntz nola kultur arloetan”

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu oso komenigarria eta interes orokorrekoa dela hitzarmen sektorial guztietan plantilla-subrogazioko klausulak sartzea.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko abenduaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du oso komenigarria eta interes orokorrekoa dela enpresaburuen eta sindikatuen ordezkariak gure foru erkidegoan hitzartzen dituzten hitzarmen sektorial guztietan plantilla-subrogazioko klausulak sartzea, langileen eta enpresen arteko lan-harremanak arautzeko, ekonomiaren sektore publikoetan eta

pribatuetan. Hori guztia, azpikontrataturako enpresetako plantillen iraunkortasunaren berme gisa.

2. Nafarroako Parlamentuak nafar guztiei helarazi nahi die adierazpen hau, bai eta Nafarroaren lurralde eremuan negoziazio kolektibo sektorialeko prozesuetan ordezkaritza-ardura duten eragile sozialei ere –enpresak eta sindikatuak–, prozesu horretan aintzat har dadin”

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa erakusten baitu, memoria historikoari eginiko eraso guztiak direla-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko abenduaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere arbuio erabatekoena erakusten du, memoria historikoari eginiko eraso guztiak direla-eta; bereziki, Zangozako gazteluak eta Oibarko gazteluaren mugarriak pairatutakoak, bai eta 1936an eraildako oibartarren oroimenez eraikitako monolitoari eginikoa ere, orain dela gutxi izandakoak.

2. Nafarroako Parlamentuak 1936ko kolpe militarren eta frankismoaren biktimekiko elkartasuna eta errespetua erakusten du.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren historia berreskuratu eta horren berri emateko lanarekiko konpromisoa erakusten du.

4. Nafarroako Parlamentuak Memoria Historikoarekiko, bizikidetasunarekiko eta balio demokratikoekiko bere konpromisoa erakusten du”

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baitu Polizia Nazionaleko bi agente hilik gertatu ziren atentatua, Kabuln (Afganistan) gertatua.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko abenduaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1 Nafarroako Parlamentuak bere gaitzespena eta arbuioa adierazten ditu, iragan ostiralean, abenduaren 11n, Kabuln (Afganistan) izandako atentatua dela-eta, zeinean hilik suertatu baitziren Polizia Nazionalak Afganistango hiriburuko Espainiako enbaxadan zituen bi agente: Isidro Gabino Sanmartín Hernández eta Jorge García Tudela.

2. Nafarroako Parlamentuak bere doluminak helarazi nahi dizkie hildako bi polizien familiei, espainiar guztien segurtasunaren eta askatasunaren alde eman baitute bizia.

3. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du indar politiko guztien bategitea terrorismoaren aurka, eta balioan jartzen du Estatuko segurtasun indar eta kidegoek gure herriaren eta espainiarren defentsan egindako lana.

4. Nafarroako Parlamentuak gonbit egiten die indar politikoei eta herritarrei, bat egin dezaten biktimen memoria ohoratu eta atentatuarekiko gaitzespena adierazteko minutu bateko isilunearekin, zeina gaur, 2015eko abenduaren 14a, 12:00etan, eginen baita, Poliziaren Buruzagitza Nagusian”

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako iparraldeko zenbait ikastetxetan 12 urtetik 16 urtera bitarteko ikasleei egindako “Nafarroa Mendialdeko 2015eko Inkesta Soziolinguistikoari” buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako iparraldeko zenbait ikastetxetan 12 urtetik 16 urtera bitarteko ikasleei egindako “Nafarroa Mendialdeko 2015eko Inkesta Soziolinguistikoari” buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide

den José Javier Esparza Abaurreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Jakin izan dugunez, Siadeco enpresa (ikerketa aplikatua) “Nafarroa Mendialdeko 2015eko Inkesta Soziolinguistikoa” izeneko inkesta egiten ari zaie 12 urtetik 16 urtera bitarteko ikasleei Nafarroaren iparraldeko zenbait ikastetxetan. Hori dela-eta, honako galdera hau egiten diogu Hezkuntzako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Departamentuak agindu al du inkesta hori?

– Gurasoei baimenik eskatu al zaie inkesta egiteko?

– Inkestak zer helburu dauka?

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna arautzen duen Foru Legearen ondorioz egin diren zabalkunde eta sentsibilizazio kanpainei eta laguntza-txakurren zerbitzua behar duten pertsonendako laguntza ekonomikoari buruzkoa.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna arautzen duen Foru Legearen ondorioz egin diren zabalkunde eta sentsibilizazio kanpainei eta laguntza-txakurren zerbitzua behar duten pertsonendako laguntza ekonomikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozialetako Batzordean izapideztea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernandez de Garaialde y Lazkano Salak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Batzordean ahoz erantzun dezan:

2015eko otsailean onetsitakoa da Ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna arautzen duen Foru Legea.

Legea onetsi ondoren, erregelamendu bidez garatu beharra dago zenbait puntutan; jakin badakigu garapen hori egite-fasean dagoela, baina legean badira erregelamendu horretaz harago doazen beste puntu batzuk ere, eta horregatik egiten dugu galdera hau:

1.- Herritarrentzako zabalkundeko eta sentsibilizazioko zer kanpaina egiten ari dira? Ez baldin bada kanpainarik egiten ari, departamentuak zer aurreikuspen eta kronograma darabil horiek egiteko?

2.- Nola kudeatuko da laguntza-txakurraren beharra duten pertsonentzako laguntza ekonomikoa?

Iruñean, 2015eko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala

Galdera, Nafarroako Hezkuntza Sistemaren ezarritako hezkuntza ereduaren ebaluazioak egiteari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Hezkuntza Sistemaren ezarritako hezkuntza ereduaren ebaluazioak egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak gutun bat igorri die Ingeleseko Ikasteko Programa ezarrita daukaten Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei, programaren egoeraren gaineko diagnostiko bat egiten dela esanez. Aldi berean, gutun horretan esaten da azterlan soziologiko bat egiten hasi dela, programaren ezarpenaren eta fun-

tzionamenduaren azterketa kualitatibo eta kuantitatibo bat egiteko xedez. Orobat dio inkesta bat egiten diela programa ezarrita daukaten ikastetxe guztiei.

Inkestaz gain, eztabaida-taldeak eta sakoneko elkarrizketak egiten direla esaten da.

Idazki horretan jasotzen da bukatzeaz dagoela azterlanerako laguntza esleitzeko prozesua, eta hurrengo egunotan harremanetan jarriko direla ikastetxeekin, inkesta bidaltzeko.

Horregatik guztiagatik, Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatzen da, informa dezan ebaluazio honen aurreikuspenei eta asmoei, ebaluazioa egiteko metodologiari, pertsonari, atal, kolektibo edo enpresei, epeei eta abarri buruz; eta informa dezan, halaber, Nafarroan ezarritako hizkuntz ereduak ebaluatzeaz Departamentuak daukan aurreikuspeni buruz, Ingeleseko Ikasteko Programarekin egiten denaren antzera.

Egiten al du Hezkuntza Departamentuak ebaluaziorik, Nafarroako hezkuntza sistemaren ezarritako hizkuntz ereduari buruz, Ingeleseko Ikasteko Programarekin egiten denaren antzekorik? Beharrezkotzat jotzen al du Departamentuak Nafarroako hizkuntz ereduaren ebaluazioak egitea? Zergatik?

Iruñean, 2015eko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko langileen 2016ko lan egutegia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 14an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak aurkeztutako proposamena eta, halaber, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak horri buruz emandako adostasuna, hona ERABAKIA:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2016ko egutegia. Hauexek izanen dira asteburutik kanpoko jaiegunak eta egun bereziak:

- Uztailaren 6a, 7a, 8a, 11, 12a, 13a eta 14a: Sanferminetako jaiegunak.

- Uztailaren 15a: jaieguna.

- Gainerako jaiegunak izanen dira Foru Komunitateko Administrazioarako oro har ezarrirakoak.

2. Ohiko lanaldia egun indarra duen berbera izanen da, astelehenetik ostiralera.

Urtarrilaren 4an, 5ean, 7an eta 8an, lanaldia 08:00etatik 15:00etara bitartekoa izanen da. Sartzeko, 07:30etik 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:30etik 15:30era

bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 7 ordu benetako bete beharko dira lanean.

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da. Sartzeko, 07:30etik 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00etatik 15:00etara bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 6 ordu eta erdi bete beharko dira lanean.

3. Gainerako egunetarako lan txanda hauek izanen dira langile guztiek bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

a) Goizeko txanda.

b) Goiz eta arratsaldeko txanda.

4. Urteko 1.560 lanorduen kopurua lortze aldera, bost ordu eta erdiko poltsa bat sortzen da. Ordu horiek 2016. urtean zehar disfrutatzen ahalko dira, dagokion zerbitzuburuak aurrez baimena emanda.

5. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren 2016ko ordutegi ofiziala.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 14an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 107. eta 109. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea hauxe izanen dela Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2016. urterako:

Urtarrilaren 1etik 10era bitartean eta uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian:

- Astelehenetik ostiralera:
09:00etatik 14:00etara.
- Uztailaren 6an, 7an, 8an, 11n, 12an, 13an, 14an eta 15ean itxita egonen da, eta baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

Urtarrilaren 11tik ekainaren 30era bitartean, irailaren bigarren hamabostaldian eta urritik abendura bitartean:

- Astelehenetik ostegunera:
09:00etatik 14:30era.
17:00etatik 19:00etara.
- Ostiralean: 09:00etatik 14:30era.

2. Baliogabeak izanen dira, halaber, larunbat, igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

